

OINARRIZKO ARAUTEGIA DOKTOREGO ESKOLAK ANTOLATUTAKO ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTZEKO

1. Zeharkako prestakuntza jarduerak UPV/EHUko Doktorego Eskolako **doktoregaientzat** baino ez dira izango (matrikula ordainduta egon beharko da jarduera hasi aurretik).
2. Jardueretan izena eman ahal izango da kasuan kasu prestatutako **formularioan**, ez bestela.
3. Parte hartzen dutenek **% 100eko asistentzia** izan behar dute bertaratze ziurtagiria edo onuraz parte hartzearen ziurtagiria lortzeko, baldin eta jarduerari buruzko deialdiak bestelako ehunekorik adierazten ez badu. Edonola ere, hutsegite guztiak justifikatu egin beharko dira behar den moduan.
4. Ikastaro edo jarduera batera joan ahal izateko, aldez aurretik **mezu elektronikoa** jaso behar da **onarpena onartuz**. Jakinarazpen hau posta elektronikoa instituzionalaren bidez egingo da, ez bestela. Ez da onartuko inoren parte hartzerik ikastaro edo jardueretan, aldez aurretik kasuan kasuko saioetara onartu ez bada.
5. Ikastaro edo jarduerara justifikaziorik gabe ez joateak eskolak antolatutako beste edozein jardueretara joateko **aukera utziko du bertan behera urte beteaz** (kasuan kasuko jardueraren amaiera egunetik aurrera kontatzen hasita). Ez joateko justifikazioa ezinbesteko arrazoiengatik argudiatuko da, behar bezala egiaztatuta (gaixotasun ziurtatua edo familiarren baten heriotza).
6. Baliatu ahal diren plazak eskariak baino gutxiago badira, aintzat hartuko da izena **emateko ordena**. Halakorik behar denean, oro har, **lehentasuna** izango dute 3. ikastaroko doktoregaiak 1. eta 2. ikastaroetakoekiko. Egoki leritzoketen jardueretarako, aintzatetsi egingo da kasuan kasu eskatuko den informazio osagarria, dela CV, memoria eta beste.
7. Ikastaro edo jardueraren **gastu zati bat ordaindu** behar denean, egindako ordainketaren ordainagiriaren kopia igorri beharko da Doktorego Eskolari.